

Martxan da jada Kosmodisea 2008-2009, teknologia berrien bidez gazteen artean ekintzailetasuna sustatzeko hezkuntza-ekimena

Jadanik ireki da Kosmodisearen hirugarren edizioan parte hartzeko izen-ematea. Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren ekimena da eta bere helburua unibertsitatetik kanpo dauden beste hezkuntza mailetan kultura ekintzailea eta digitala sustatzea da.

Kosmodisea ekimenaren deialdi berri honetan, pasa den urtean bezalaxe, parte-hartzeko bost maila daude, hezkuntza-ziklo bakoitzeko bat, Lehen Hezkuntzan izan ezik, bi sistematan banatu baita: lehen, bigarren eta hirugarren mailak (Neo Sistema); laugarren, bosgarren eta seigarren mailak (Fisio Sistema). Gainerako zikloak ondorengo hauek dira: DBH (Glos Sistema), Batxilergoa (Logo Sistema) eta Heziketa Zikloak (Tekhne Sistema).

Kosmodisean parte hartuko duten ikasleek zikloen araberako ondorengo gai hauek landu beharko dituzte: Lehen Hezkuntzan parte hartzeko argumentua “Berrikuntza zientifikoa eta Ingurumena” izango da; DBHn, “Berrikuntza hiritarra: parte-hartze aktiboa”; Batxilergoan, “Berrikuntza kultural-artistikoa”; eta Heziketa Zikloetan (Tekhne Sistema), “Teknologia- eta gizarte-berrikuntza”.

Taldean egindako bozketa baten bidez, ziklo bakoitzean ideia irabazlea zein den aukeratuko da. Ideia hori izango da, ondoren, Kosmodisearen fase bakoitzean garatuko dena. Ideia-jasa irailaren 22a eta urriaren 31a artean izango da eta azken bozketa urriaren 27 eta 31 artean egingo da. Azaroaren 3an, ziklo bakoitzeko ideia irabazlea jakinaraziko da.

Kosmodisearen edizio honetan, eta planeten etaparekin hasi aurretik, taldeek entrenatzeko denbora izango dute: programak jaitsi eta ezagutzen hasi; simulatzailearen demo batekin jardun; ideia irabazleen inguruko informazioa bilatu eta aurreko

edizioetan egindako lanak berrikusi. Entrenamendu-fasea azaroaren 3tik abenduaren 1era izango da.

Kosmodisea osatzen duten planetak, eta talde bakoitzak planeta bakoitzari dagokion misioa betetzeko datak ondorengo hauek dira: Fono Planeta (soinua), 2008ko abenduaren 1etik 2009ko urtarrilaren 23ra; Ikono Planeta (irudia), 2009ko urtarrilaren 26tik martxoaren 6ra; Mito Planeta (bideoa), 2009ko martxoaren 9tik apirilaren 10era.

Pasa den edizioan, Gipuzkoako 35 ikastetxetako 1.103 ikaslek eta 77 irakaslek hartu zuten parte.

Kosmodisea, ekintzailetasunari dagozkion balioak (sormena, norberaren buruagan konfiantza, ekimena, eskusibotasuna, malgutasuna, talde-lana, tolerantzia, analisirako gaitasuna, borondatea, gogoeta, aitzindaritzza, iraunkortasuna, akatsari tolerantzia, gatazkei aurre egiteko gaitasuna, gizarte-ardura) garatzen dituen ekimena da, bai eta kultura ekintzailearen gaitasun eta trebetasunak ere (gizalegezkoa, hizkuntzalaria, digitala, teknologikoa, zientifikoa, soziala). Hori guztia talde-lanaren bidez egiten denez, besteak beste, gainerakoak entzutea, zintzotasunez hitz egitea, erabakiak adostea, elkar errespetatzea, dibertsitatea integratzea, etab. bultzatzen ditu parte-hartzaileak.

Gainera, hori guztia egiteko, talde parte-hartzaileek kultura digitalaren teknologia aurreratuak erabiltzen dituzte; horien artean, blogak, audioak, irudiak eta bideoak editatzeko programak, simulatzaileak, "webquest" metodologia ("kosmoquest"), eta beste hainbat tresna ditugu.

Kosmodisea 2008-2009 informazio guztia

Kosmodisea 2008-2009 liburuxka

Kosmodisea web-orria
www.kosmodisea.net